

BIHAR, martxoaren 6an, EHUko irakasle eta ikertzaileok guztiok GREBARA!!!!

6 DE MARZO HUELGA DE TODO EL PDI EN LA UPV/EHU

M-6
MARTXOAK

**EHUko irakasle eta ikertzaile guztien
GREBA**

8:00etan piketeak campus guztietan
KONTZENTRAZIOAK 11:30ean

Bilbo: Hezkuntza ordezkaritza
Kale Nagusia, 85

Donostia: Hezkuntza ordezkaritza
Andia Kalea, 13

Gasteiz: Errektoreordetzaren aurrean
Comandante Izarduy, 2
(ondoren giza-katea hezkuntza ordezkaritzara)

eta M-12an greba zerbitzu publikoetan

800 €-tan
EZI!

LAB **steilas** **ELA**
EUSKAL SINDIKATUA



Azken hilabeteetan ordezkoen prekarizazio larriak erdigunean jarri du EHUko irakasle eta ikertzaileok pairatzen ditugun lan-baldintza kaxkarrak. Izan ere, ordezkoen afera edalontzira eroritako azken tanta izan da.

Irakasleen bajak eta baimenak lanaldi partzialeko ordezko irakasleen bitartez betetzeak (gehienez 800 euroko soldatekin), prekarizazioa areagotuko du EHUan, baita, kasu askotan sailtako gainerako irakasleen irakaskuntza zama handitu. Horri gehitu behar zaio berriak ez diren hainbat egoera: lan-zama handia, erosahaltenaren galera metatua urteetan zehar, osagarrien izozketa 2006tik, kolektiboaren barruan ematen diren diskriminazioak (bosturtekoak, seiurtekoak, ...), plantilaren ezegonkortasuna, erretiroen akordioen deuseztatpena, aldebakarreko campusen itxiera...

Egiturazkoa den arazo bat dugu guzti honen atzean: EHUren finantziazioa ez-nahikoa. Irakasle eta ikertzaileen Errektoreordearekin izandako bileretan ez da negoziatzeko borondaterik antzeman eta bere zuzendaritzatik jasotako proposamenek ez dute irakasle-ikertzaileek ditugun arazoak konpontzen. Jarrera itxi honek eta Eusko Jaurlaritzak erantzunik eman ez izanak berriro mobilizatzeko beharra eramaten gaituzte.

UPV/EHUko prekarioen koordinadorak abian jarri du grebarekin bat egiteko ekimena. LABek, Steilasek eta ELAk bat egin dute ekimenarekin, eta sinatzera animatu nahi zaituztegu.

<https://forms.gle/71kmpMWMJ64Ujrwq6>

8:00etan pikete informatiboak campusetan:

- Leioan: Campusaren sarreran
- Donostian: Barriola eraikinaren sarreran (Elhuyar plaza, 1)
- Gasteizen: Farmazia fakultatearen atzean (René Cassin kalea)

11:30etan elkarretaratzeak:

- Bilbon: Hezkuntza ordezkartzan (Kale Nagusia, 85) (mobilizazio nagusia)
- Donostia: Hezkuntza ordezkartzan (Andia kalea, 13)
- Gasteiz: Errektoreordetzan (handik, giza katean Hezkuntza ordezkartzara joango gara; San Prudentzio kalea, 18)